

## **ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK**

### **ATARIKOA**

2020ko martxoaren 17an, Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen, eta Udalbatzarrak 2022ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez eguneratu dago. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako hirugarrena “Gizarte ekintzak” izeneko da.

Lerro honen C ekintza tratamenduak jasotzeko dirulaguntzak dira eta helburua tratamendua jasotzeko bidaia gastuak ordaintzea da.

### **1.- Justifikazioa**

Eskoriatzako udalak, adikzioek sortzen dituzten arazoak kontuan hartuz eta gizarte osasuntsuagoa lortzeko asmoarekin, laguntza eman nahi die desohitze tratamenduetan hasten diren herritarrei. Tratamendu zentroek euren eskaintza profil eta egoera berrietara egokitu behar izan duten moduan, guk ere egungo egoerara egokitzeko beharra ikusten dugu. Horrek, alde batetik, tratamendua behar duten nerabeak eta euren familiak kontuan hartzea eskatzen digu. Izan ere, kontsumo goiztiarrek edo substantzien erabilera arazotsuek eragin zuzena dute edo izan dezakete eskola porrotean, jarrera deliktiboetan edo portaeraren nahasmenduan. Eta, bestalde, substantziekin menpekotasuna ez ezik, substantziarik gabeko bestelako menpekotasunak ere kontuan hartu behar ditugu: ludopatiak, teknologia berriekin menpekotasunak, etabar.

### **2.- Helburua**

Adikzio arazoengatik tratamenduan dauden Eskoriatzako herritarrei tratamendu-zentroetarako joan-etorriak erraztea, lehentasuna emanez EAEko tratamendu zentro publiko eta kontzertatuetara egiten diren bidaiei.

### **3.- Diru laguntzak jaso ditzaketen gastuak**

Laguntzak tratamendu-zentrorako joateko bidaia gastuak ordaintzeko izango dira. Garraio gastutzat hartzen dira garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan Eskoriatzatik tratamendu-zentrorako egindakoak; hala ere, laguntzak emateko, kontuan hartuko da gehienez ere bi pertsonak (eragindako pertsonak eta haren laguntzaileak, zentroak pertsona gehiago bertaratzeko eskatzen ez badu, behintzat) hilean egindako bidaia-kopurua eta bidaia horiek garraio publikoan eginez gero izango luketen kostua MUGI txartela edo parekoa erabilia, txartela erabiltzeko aukera dagoen kasuetan.

Kasu berezietan, terapia saioetara edo beste tratamendu mota batzuetara ere joateagatik sortutako gastuak diruz lagundu ahal izango dira.

### **4.- Organo eskuduna**

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Udalbatzarra da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).



## **5.- Araudi aplikagarria**

Dirulaguntza hauek eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauek eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a)

-39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

-Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.

-Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Plan Estrategikoa (2020ko martxoaren 17ko GAO).

## **6.- Erregimena**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira, adikzio motaren bat duen eskoriatzar orori tratamendua jasotzea bermatzea gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

## **7.- Onuradunak eta bete beharreko baldintzak**

Adikzio arazoengatik edo kontsumo goiztiarren ondorioz jokabide arriskutsuak dituztelako tratamendu programa bat jarraitzen ari diren Eskoriatzan erroldatutako herritarrek.

Eskatzailea Eskoriatzan erroldatuta egon beharko da. Tratamenduan zehar Eskoriatzan erroldatuta egoteari uzten badio, erroldan baja ematen duen egunetik ez du laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango.

Hala ere, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak ahalmena du aurkezten diren kasu berezi guztiak aztertu eta erabakitzeke.

Tratamendu programan gutxienez bi hilabetez egon ostean eskatu ahal izango dira dirulaguntzak. Dirulaguntzak tratamendua hasi zen egunera arteko atzera eragina izango du.

Eskatzaileak ezingo dira azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere egon.

## **8.- Onuradunen betebeharrak**

Tratamenduan dagoen pertsonaren edo familiakoen egoeran araudi honetako diru laguntzari eragiten dion aldaketarik gertatuz gero (adibidez, tratamendua bukatzea edo bertan behera uztea), horren berri eman beharko da eta behar bezala egiaztatu Udala Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateari, aldaketa gertatu denetik gehienez ere 30 eguneko epean.



## 9.- Finantziazioa

Udalak dagokion aurrekontu partida gaituko du diru laguntza hauek emateko, eta horren zuzkidura izango da Udalak emango duen gehienezko diru kopurua.

Deialdian zehaztuko da aurrekontu zuzkidura, eta ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berariaz sartuta egon beharko da.

## 10.- Diru laguntzak eskatzeko modua eta epea

Eskaerak sinatutako eskaera-orri bidez egin beharko dira, eta udaletxean eta webgunean eskura dauden eskaera ereduari egokitu beharko zaizkio.

Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:30era, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean edo, telematikoki, Herritarren Atarian.

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da eta deialdiko urtearen abenduaren 31n amaituko da.

Eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntza eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek (onartu ezean, horiei buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko du):

- Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
- Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu.
- Ez duela sexu-diskriminazioagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
- Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
- Ez duela 17/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.

Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeke behar diren datuak. Eskatzailea eskaera-orrian horren aurka agertzen bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoakegunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Eskaera orriekin batera, eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- Bizikidetzaren unitateko kide guztien diru sarreraren ziurtagiria (eskatzailea, ezkontidea eta euren kargura dauden seme-alabak).
- Tratamendu zentroak egindako ziurtagiria, non adieraziko den tratamenduan gutxienik 2 hilabetez aritu izana.
- Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak beharrezko jo dezakeen beste edozein agiri.

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

## 11.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria

Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentuak identifikazio daturik ez badute, akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1



artikuluan jasota bezala, hamar eguneko epea emango zaio atzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igaroz gero horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango die Udalak eskatzaileei.

## **12.- Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea**

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateak tramitatuko ditu.

## **13.- Eskaerak ebaluatzeko irizpideak**

Lortu nahi den helburua tratamendu gastuak finantzatzeko dirulaguntza ematea denez, norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, denborarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri. Hau da, eskaerak aurkeztu ahala erabakitzen joango dira horretarako dagoen aurrekontu kontsignazioa agortu arte.

## **14.- Prozedura eta erabakia**

Eskaerak sarrera hurrenkeran tramitatu eta erabakiko dira horretarako aurrekontu kreditua dagoen artean.

Eskaera aurkeztuta, prebentzio teknikariak aztertuko du; eta dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, diru laguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Azkenik, eta diruz lagungarri den jarduera bati dagokion gastua dela esateko teknikariak egindako txostena jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, honek dagokion erabakia har dezan.

Erabakia gehienez ere hiru hilabeteko epean hartuko da Udal Erregistroan eskaerari emandako sarrera egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.

## **15.- Diru laguntzaren zenbatekoa**

Onuradunek zenbateko dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten kalkulatzeko, ondorengo baremo ekonomikoa aplikatuko da, urtero eguneratu ahal izango dena deialdiko erabakian.

Zenbateko diru laguntza eman kalkulatzeko, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hartuko da oinarri. Beste datu hauek ere kontuan hartuko dira:



- Bizikidetza unitatearen hileroko diru-sarrerak.

- Bizikidetza-unitateko kide kopurua.

Kasu bakoitzari eman beharreko diru laguntzaren portzentajea honela kalkulatu da:

\* Oinarrizko irabazien bikoitza irabaziz gero, % 0ko diru laguntza.

\*  $Y + 100X = 200$

\*  $X = \text{hileroko irabaziak} / \text{oinarrizko irabazien } \%100$

Oinarrizko irabazien %100aren taula ondoren zehazten dena da:

#### **BAREMO TAULA**

<b>KIDEAK</b>	<b>LGS</b>	<b>I.Z.</b>	<b>O.I. :%100 DIRU LAGUNTZA</b>
1	x	x	1,6
2	x	x	1,5
3	x	x	1,4
4	x	x	1,3
5	x	x	1,2
6	x	x	1,1
7	x	x	1
8	x	x	0,9

8 kidetik gora dituzten familia unitateen indize zuzentzailea 0,9 izango da.

**OHARRA:** LGS: urtean indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldata.

**I.Z.:** Indize Zuzentzailea, bizikidetza unitateko kide kopuruaren arabera.

**O.I.:** %100 diru laguntza jasoko dutenen hileroko diru-sarrerak; kopuru hori oinarri gisa erabiliko da kasu bakoitzean emango den diru laguntzaren portzentajea zehazteko.



#### **16.- Justifikazio epea eta era**

Dirulaguntza ordaindu aurretik, tratamendu zentroak egindako hileroko asistentzia egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek, eta bertan, tratamendura joandako egunez gain, bakarrik ala laguntzailearekin joan den zehaztu beharko da.

#### **17.- Dirulaguntza ordaintzeko modua**

Dirulaguntza onartu eta gero, ordainduko da, betiere tratamendu zentroko frogagiriak aurkeztu ondoren.

Ordaindu beharreko diru kopurua eskatzailearen kontuan sartuko da, edo tratamendura laguntzen dion senide edo lagunaren kontuan.

#### **18.- Dirulaguntzak pilatzea**

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, dirulaguntzaren kopurua ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

#### **19.- Dirulaguntzak argitaratzea**

Dirulaguntza, banaka hartuta, 3.000 eurotik gorakoa baldin bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira onuradunaren izena eta emandako diru laguntza.

Ez da diru laguntzen daturik argitaratuko, diru laguntzaren xedeagatik, pertsona onuradunaren datuak argitaratzeak pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal zein familiarra ez errespetatzea edo ez babestea ekar dezakeenean.

#### **20.- Diru laguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea**

Dirulaguntza berraztertzeko eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da dirulaguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

#### **21.- Oinarriak interpretatzea**

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak erabakiko du.

#### **22.- Garapena eta exekuzioa**

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.

#### **23.- Errekurtsoak**

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtoa jarri dakioke oinarriak onartu dituen organo eskudunari. Horretarako hilabeteko epea izango da. Bestela, zuzenean inpugnatu daitezke



Administrazioarekiko Auzitegian, eta horretarako bi hilabeteko epea izango da. Epe biak oinarri hauek GAO on argitaratzen diren biharamunean hasiko dira kontatzen.

#### **24.- Indarrean jartzea**

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean izango dira indarrean.



## DIRULAGUNTZA ESKAERA

Solicitud de subvención

<b>IZEN-ABIZENAK</b> / Nombre y apellidos	<b>NAN</b> / DNI
---	------------------

**Orri hau beste baten izenean betez gero, idatzi horren datuak ere ondorengo taulan:**

En caso de formalizar este escrito en nombre de una tercera persona o entidad, rellenar los siguientes datos

<b>ZEINEN IZENEAN</b> / En nombre de quién	<b>NAN/IFK</b> DNI/CIF
--	------------------------

**Jakinarazpena bidaltzeko datuak** / Datos para envío de notificaciones:

<b>HELBIDEA</b> / Dirección	<b>HERRIA</b> / Población	<b>PK</b> / CP
<b>TFNO. FINKOA</b> / Tfno. fijo	<b>TFNO. MUGIKORRA</b> / Tfno. móvil	<b>E-maila</b>

<b>ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZAREN IZENA</b> / Nombre de la subvención solicitada
--

<b>BANKUKO DATUAK</b> / Datos bancarios			
<b>KONTUAREN JABEA</b> Titular de la cuenta			
<b>BANKETXEA</b> Entidad bancaria		<b>KONTU zb. (20 digitu)</b> Nº cuenta (20 dígitos)	



### DATUEN EGIAZTAPENA / Verificación de datos

Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko ditu sektore publikoko edozein erakundetan beharrezkoak diren datuak, deialdia arautzen duten oinarrietan jasotako laguntzak eskuratzeko.

Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu:

- Interesdunak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela.

Interesduna egiaztatze horren aurka ager daiteke, eta kasu horretan eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento de Eskoriatza verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acceder a las ayudas recogidas en las bases que rigen la convocatoria.

Concretamente, realizará las siguientes consultas:

- Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral.

La persona interesada podrá oponerse a dicha verificación, debiendo aportar en ese caso los certificados requeridos.

Aurka nago, eta beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.  
No estoy de acuerdo, y en consecuencia, aporto la documentación requerida.

### ZINPEKO AITORPENA / Declaración jurada

#### Eskatzaileak (edo berak ordezkatzeko duen erakundeak edo pertsonak):

El/la solicitante (o en su caso, la persona o entidad a la que representa):

- Ba al du hasita edo tramitean dirua itzultzeko inolako prozedurarik Euskadiko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan, beraiegandik jasotako dirulaguntzen eremuan?

¿Se halla incurso en algún proceso de devolución económica ante la Administración General del País Vasco y sus organismos autónomos, en el ámbito de las subvenciones recibidas de ellos?

**Bai** / Sí

**Ez** / No

- Beste inongo erakundetan eskatu al du dirulaguntzarik jarduera horretarako?

¿Ha solicitado a alguna otra entidad subvención para llevar a cabo las actividades mencionadas?

**Bai** / Sí

**Ez** / No

- Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen ondorioz, jaso al du administrazio-zigorrik edo zigor penalik?

¿Ha incurrido en discriminación sexual o ha recibido alguna sanción administrativa o penal como consecuencia de la ley para la igualdad de hombres y mujeres?

**Bai** / Sí

**Ez** / No

- Bere xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak al dira?

Sus fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, ¿son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres?

**Bai** / Sí

**Ez** / No

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan dirulaguntzak jasotzeko aipatutako debekurik ba al dauka?

¿Incurre en alguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre?

**Bai** / Sí

**Ez** / No



<b>DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA</b> <b>Información básica sobre el tratamiento de datos</b>		
<b>ESKORIATZAKO UDALA</b> Kontuan hartuta zer xedatzen duten Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, jakinarazten dizugu formulario honetan jasotako datuen tratamendua konfidentziala izango dela eta ESKORIATZAKO UDALaren erantzukizunpean egingo dela, helbidea: Fernando Eskoriatza plaza 1, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).	<b>Arduraduna</b> Responsable	<b>ESKORIATZAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA</b> De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; le informamos que los datos aportados en este formulario, serán susceptibles de tratamiento estrictamente confidencial bajo la responsabilidad de ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).
Laguntza kudeatzea eta baldintzak betetzen diren baloratzea. Laguntza beste erakunde batek baimen libre, argi, informatu eta prestatzen eta bidaltzen laguntzea.	<b>Xedea</b> Finalidad	Gestionar la ayuda y valorar el cumplimiento de los requisitos. En caso de que sea otra entidad la que otorgue la ayuda, asistir con la elaboración de los documentos y envío de los mismos.
Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe.	<b>Legitimazioa</b> Legitimación	La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo.
Interesdunak inprimaki honetan bertan emandakoak.	<b>Jatorria</b> Procedencia	Facilitado por la propia persona interesada en la presente instancia.
Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie. Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko.	<b>Hartzaileak</b> Entidades destinatarias	Los datos se comunicarán a las Administraciones Públicas con Competencias. Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa.
Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea eta aurkaratzea, eta datuak eramatea, bai eta informazio gehigarria azaldu diren beste eskubide batzuk ere. Eskubide horiek baliatu ditzakezu idatzi bat bidaliz ohiko postaz goian adierazitako Udalaren helbidera, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, edo, telematikoki, esteka honen bidez: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA</a>	<b>Eskubideak</b> Derechos	Acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad, así como otros derechos explicados en la Información Adicional. Puede ejercerlos remitiendo un escrito por correo postal a la dirección arriba indicada y acompañándolo de fotocopia de documento de identidad acreditativo, o telemáticamente a través del siguiente enlace: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA</a>
Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure pribatutasun-politikan kontsultatu dezakezu. <a href="http://eskoriatza.eus/udala/privatutasun-politika/">http://eskoriatza.eus/udala/privatutasun-politika/</a>	<b>Informazio gehigarria</b> Información adicional	Puede consultar la información adicional sobre Protección de Datos en nuestra Política de Privacidad. <a href="http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/">http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/</a>

Eskoriatza, .....ko .....aren .....a  
Sin.

**Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna. /**  
La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos, por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.